

HERRITARREN FOROAREN MUGIKORTASUNA ETA HIRI PLANEAMENDUAREN 1. LAN SAIOA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2008ko irailak 17 Hondarribiko Udaleko Pleno Aretoa 19:00ak
Harremanetarako pertsona:	Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): <ul style="list-style-type: none"> - Aitor Gonzalez - Edurne Simón - Naroa Susperregi
Telefonoak:	943 492 215
Helbide elektronikoa	info@izadi21.net

Gai-zerrenda:	<ol style="list-style-type: none"> 1- Etorritakoei ongi etorria 2- Udal mahai teknikoek prestatutako Ekintza Planaren zirriborroaren eztabaida eta osaketa
----------------------	--

PARTE HARTU DUTE:

Banakako herritarrak:

- Asun Yarzabal
- Ibon Izagirre
- Imanol Subijana

Elkarteak, enpresak, eskola zentroak:

- ACUBI –*Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa*- (Belén Martínez)
- KALAPIE Bidasoaldea (Amadeli, Domingo Balerdi)
- SOS MADDALEN KARRIKA (M^a Eugenia Berrotaran)
- SURBESTA Korua (M^a José Bilbao)

Erakundeak:

- Hondarribiako Udala (Gregorio Berrotaran –landa garapeneko zinegotzia-, Ion Elizalde –Ingurumena eta Agenda 21eko zinegotzia-, Iosu Alvarez Yeregui –PSE/EEko zinegotzia-, Josebe Fernández –Gizarte Zerbitzuetako teknikaria-, Maiaia Urrutia –EAJko zinegotzia-, Maite Pelaez –Gizarte Zerbitzuak, Turismoa, Merkataritza eta Gazteriako zinegotzia-, Maria Luisa Arija –PSE/EEko zinegotzia-, Miren Legorburu –EAEko zinegotzia-)

1. Etorritakoei ongi etorria:

Agenda 21en Herritarren Foroaren Mugikortasuna eta Lurralde Antolamenduaren Mahaiaren 1. lan saioari hasiera emateko, Ion Elizalde (Hondarribiko Udaleko Alkateordea eta Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia) etorritakoei bilerara etorri izana eskertu zien lehenik eta bigarrenik, bileraren helburua udal mahai teknikoek landutako Ekintza Planaren zirriborroan mugikortasunarekin eta hiri planeamendurekin zerikusia duten ekintzak aztertzea eta osatzea dela azaldu zuen. Jasotako ekarpenekin Ekintza Plana osatu eta urriaren amaiera aldera antolatuko den gaikako mahaiaren bigarren lan saioan helburura ekintza plana osatzen duten ekintzak lehenestea izango dela adierazi zuen.

Ondoren, Agenda 21en prozesuaren aholkularitza teknikoari hitza pasa zion.

2. Udal mahai teknikoek prestatutako Ekintza Planaren zirriborroaren eztabaida eta osaketa:

Izadi 21eko teknikariek mahai honi Ekintza Planaren zirriborroaren 4. lerro estrategikoa eta 5. lerro estrategikoa aztertzea dagokiela aipatu zuten eta bileraren lan metodologia lerro horietan jasotako jarduera programetan jasotako ekintzak ordena jarraituz aztertu eta osatzean oinarrituko dela.

Jarraian azaltzen dira bileran zehar aipatutako puntuak, egindako ekarpenak eta ekintzen proposamen berriak:

LE 4: Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea:

P 4.1. Herria neurrigabe handitzea eragozteko eta hiri dentsitate egokiak bultzatzeko programa:

4.1.1 Udaletik hirigintza garapen eredu hedakor baten ordeztu eredu intentsibo baten alde lan egin.

Bilerara bertaratutako zenbaitek ekintza honen inguruko zehaztasun falta aipatu zuten, izan ere, horien ustez, interesgarria litzateke 4.1.1. ekintzan eredu intentsibo bati buruz ari garenean, altueran intentsibo izateaz ari garela jasotzea. Hau da, etxebizitzak altueran haziz, lurzoru behar gutxiago behar izaten da (lurzoruaren okupazio txikiagoa –kontuan hartu behar da lurzoruaren ere natur baliabide bat dela eta modu arrazionalerik erabili beharrekoa-).

Ion Elizaldek Hirigintza Plan berriaren Hirigintza Aholku Kontseiluan altueran eraikitzearen aldeko irizpide hori ere planteatzen ari direla aipatu zuen, helburua aipatu irizpidea Plan berriaren sartzea izanik.

Egindako ekarpenak aintzat hartuz, 4.1.1. ekintzaren edukia honela geratzeko litzateke: *Udaletik hirigintza eredu hedakor baten ordeztu (bereziki dentsitate baxuko etxebizitza eredu oinarritutakoa) eredu intentsibo baten*

alde lan egin (hau da, lurzoru behar gutxiago duten altueran eraikitako etxebizitza garapenak ahalbidetu).

Hurrengo jarduera programa aztertzen hasi aurretik (4.2. Programa), Miren Legorburuk ekintza gehigarriak proposatu zituen:

- Hondarribian hutsik egon daitezkeen etxebizitzetako buruzko errolda egin eta etxebizitza hutsen arazoari irtenbidea emateko martxan jar daitezkeen neurri ezberdinei buruzko azterketa egin
- Sustapen pribatuko etxebizitzak familien egoerara egokitzeko araudia abian jarri

Proposatutako lehen ekintza berriari dagokionez, Miren Legorburuk neurrietako bat zergetan islatu daiteke. Aldiz, Josu Alvarezi gain kargetan oinarritutako neurriak ez zaizkio egokienak iruditzen.

P.4.2. Lurzoruaren erabilera arrazionala eta mistoa sustatzeko programa, lantokien, etxebizitzaren eta zerbitzuen artean oreka lortzea bultzatuz:

Miren Legorbururen ustez programa honetan barneratutako 3 ekintzak aurrera eramateko zailtasunak ikusten ditu eta programaren edukia errealistagoa izateko edukia eraldatzea proposatu zuen.

Kalapie elkartearen ustez, auzoetako bizitza suspertzeko modu eraginkorrenetarikoa horietan merkatari txikiei tokia egitea eta horien presentzia bermatzea da.

Adierazitako aipamenak aintzat hartuz (alegia, programaren edukia aurrera eramatea erraztea) 4.2. programaren izenburua jarraian jasotzen den moduan berridaztea proposatu zen: *Lurzoruaren erabilera arrazionala eta mistoa sustatzeko programa, ekoizpen jarduera txikien eta etxebizitzaren arteko oreka lortzea bultzatuz.*

P. 4.3. Dagoeneko existitzen diren Hondarribiko eraikinetan eraikuntza eta diseinu iraunkorrak barneratzeko eskakizunak ezartzea :

4.3.1. ekintzari dagokionez (Eraikin publikoetan eguzki energiaren ezarpenaren inguruko azterketa egin), Asun Yarzabalek eguzki energiaren ezarpena mugatu beharrean, eraikin publikoetan natur baliabideen aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeko sistemak ipintzea interesgarriagoa ikusten duela aipatu zuen. Beste aukera bat izango litzateke, sistema horiei erreferentzia egiten dion ekintza berri bat gehitzea 4.3. programari. Bigarren aukera ontzat eman zuten bertaratutakoek, beraz, ekintza berriaren edukia honakoa izango da: *Eraikin publikoetan natur baliabideen aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeko sistemak ezartzen joateko pausoak eman.*

Ondoren, Miren Legorburuk eraikin publikoetan natur baliabideen aurrezpen plan bat martxan jartzea egokia litzatekeela adierazi zuen. Aldi

berean, eraikin publikoetan energia berriztagarriak ezartzeaz gain, etxebizitza pribatuetan ere energia berriztagarriak ezartzen joateko pizgarriak martxan jartzea egokitzat jo zuen, horretarako ordenantza fiskal bat onar daitekeela azpimarratuz.

Asun Yarzabalen hitzetan, Donostiako Udala eraikinen kodearen edukia baino haratago doan ordenantza bat onartzeko bidean da (ingurumenari dagokionez eraikinen kode berria baino zorrotzagoa den ordenantza). Ildo honetan, bileran parte hartutakoek ekintza berriaren edukia honakoa izatea adostu zuten: *Ingurumenaren hobekuntzaren ikuspuntutik eraikin kodearen edukia baino haratago doan udal ordenantza bat diseinatzeko aukera aztertu.*

P 4.4. Herriko kultur ondarea gordetzeko, berritzeko eta indartzeko programa:

4.4.6. ekintzari dagokionez (Udalerriko bidexken sarea diseinatu eta martxan jarri gero Udaletik sare hori behar bezala antolatzeko eta ezagutzera emateko), Udaleko hainbat zinegotzik aipatu zuten moduan, bidexken sarea jada diseinatuta dago eta ez luke zentzu handirik izango ekintza hori Ekintza Planean sartzeak, ekintza burututa dagoelako. Beraz, bertaratutakoek 4.4.6. ekintza dokumentutik kentzea onartu zuten.

Hori egin ostean, Miren Legorburuk lau ekintza gehigarri proposatu zituen:

- Arrantza sektoreari lotutako kultur ondarea indartzea. Horretarako, aurrera eramane daitekeen jardueretako bat Karroaren berreskurapena izan daiteke,
- Alde zaharraren ondarea indartzea, bereziki auzo-bizitzaren biziberritzea eta alde zaharrak duen balio historikoa oinarritzat hartuz,
- Jaizkibel mendian dauden aztarnen balioa handitzea (estazio megalitikoa, esaterako),
- Hondarribiko euskalkiei buruzko multimedia materiala sortzea

Azken ekintza honi dagokionez, idazkaritza teknikitik proposatu zen edukia kontuan hartuz, ekintza 2.10 programan koka daitekeela (Euskararen ezagutza eta erabilpena bultzatzeko programa).

Bestalde, alde zaharraren ondarea indartzeari dagokionez, udalerraren ondarea soilik alde zaharra ez dela adierazi zuen, Maddalen karrikan hasten den Done Jakue bidearen berreskurapena ere udalerriko ondarea indartzeko ekintzetako bat izan beharko litzatekeela defendatuz. Ildo honetan, Maddaleneko tenplua ere babestu beharko litzatekeela aipatu zuen, Maddalen karrikatik igarotzen diren bide zaharrak berrezarpenarekin batera. Bileran parte hartutakoek 4.4. programan Maddalen karrikari lotutako ekintza berri bat sartzea adostu zuten: *Maddalen karrikako ondare historikoa ikertu, berreskuratu eta balioan jartzea bultzatu (Done Jakue bidea, tenplua, bide zaharren berreskurapena, e.a.).*

Programa honekin amaitzeko, Izadi 21etik zera proposatzen dugu: 4.4.4. ekintzaren edukiaren esanahia eta 4.4. programaren esanahi berbera izanik,

4.4.4. ekintza dokumentutik desagertzea (*Udalerriko kultura ondarea zaindu eta suspertzera bideratuko udal politika aurrera eraman*).

LE 5 Biztanleriaren mugikortasun eta irisgarritasun beharrak iraunkortasun irizpideak aintzat hartuz asetzea

P 5.1. Autoaren erabilera arrazionala bultzatzeko programa:

Bidasoaldeko Kalapie elkartearen ustetan, ezinbestekoa da eskualdeko 3 udalerriak bizikleta bideen sare koherente eta eroso baten bidez lotzea. Era berean, eskualdean lan egiten duten herritarrei dagokionez, lantokira bizikleta bidez iristeko asmoz, irisgarritasuna hobetzeko neurriak abian jartzearen garrantzia ere azpimarratu zuen.

Gai honi dagokionez, Ion Elizalde Udalak Irisgarritasun Plana diseinatu duela azaldu zuen eta bertan, beste neurri batzuen artean, aireportu ondoko errepidean autobusarentzako bidea eta bidegorria jasota agertzen direla aipatu zuen.

Miren Legorburuk 5.1.1 ekintzan herri barneko mugikortasunari eta trafikoari erreferentzia egiten zaion moduan, kanpo trafikoa ere aintzat hartu beharreko alderdi bat dela gaineratu zuen. Hori dela eta, kanpo trafikoan eragiteko neurriak aurrera eramatea ere jasotzea proposatu zuen; hau da, herritik kanpora desplazatzen diren herritarren mugikortasunari begira ere mugikortasun iraunkorreko neurriak martxan jarri beharko liriatekeela (hala nola; disuasio aparkalekuak eta autoa partekatzeko sistemak). Bestetik, bertaratutakoek 5.1.1 ekintzaren edukiari mugikortasun planean herritarren beharrak aztertu beharko liriatekeela gaineratu zuten. Beraz, 5.1.1 ekintzaren edukia honela geratuko litzateke: *Hondarribiko barne trafikoa eta mugikortasunaren ikerketa gauzatu, aurrez herritarren beharrak aztertuz eta aipatu dokumentua mugikortasun iraunkorreko irizpideekin osatuz.*

Asun Yarzabalek autoaren gaineko mugen eta kontrolen gaian, disuasio aparkalekuak kanpotik datozen autoei ere jartzea komeni izango litzatekeela komentatu zuen, eta baita ere barruko auto bidezko joan-etorriei ere. Ildo honetan, disuasio aparkalekuak garraio publikoaren eskaintza eraginkor bati lotuta joan beharko liriatekeela defendatu zuen.

Aipatu bi ekarpenak aintzat hartuz, 5.1. programari ekintza berri bat gehituko genioke: *Autoz egiten diren joan-etorriei begira -herri barruko desplazamenduak, kanpotik udalerrira egiten direnak eta Hondarribitik kanpora egiten direnak- iraunkortasun irizpideak eta neurriak martxan jartzea (hala nola; autoa partekatzeko sistemak, disuasio aparkalekuak eta garraio publikoaren eskaintza eraginkorra).*

5.1.2 ekintzari dagokionez (*Hirigune historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraibideen sarrera kontrolatuz eta garraibide pribatuen sarrera ekiditeko pausoak emanaz, beti ere, bertako bizilagunei zuzendutako alternatibak martxan jarritz*), Kalapie elkartearen ustez, alde zaharrera ez ezik, udalerriko gainerako auzoetara ere zabaldu beharko liriateke autoari jarritako mugak eta kontrolak. Ion Elizalde erantzun zuen

mugikortasun eta irisgarritasun planean Udalak Portu auzoan anbiziosoak diren neurriak abian jartzea aurreikusten duela.

5.1.4. ekintzaren edukiari dagokionez (*Udaletxeko apustu eta erabaki politiko moduan, udalerrian zehar mugitzeko garraio publikoaren, oinezko joan etorrien eta bizikletaren erabilpenaren alde egitea*), irisgarritasunak unibertsalak izan beharko lukeela esan zuten Sos Maddalen Karrika elkarteak. Hori dela eta, ekintza honen edukian "herritar guztientzako" aipamena edukian gehitu beharko litzatekeela proposatu zuten eta bertaratutakoek aipamen hori 5.1.4. ekintzaren edukiari gehitzea ontzat jo zuten.

P 5.2. Kalitatezko garraio zerbitzu publiko eraginkorra eta erakargarria sustatzeko programa:

5.2.1 ekintzan (Udaletxetik, beste erakunde batzuekin koordinatuz, autobus bideak sortzeko aukera ikertu -bide horiek ere taxiak, bizikletek eta okupazio altuko ibilgailuek erabiltzeko aukera izan dezaten-), Irunekin tranbia bidezko lotura bultzatzea proposatu zen. Bestalde, autobus bideak okupazio altuko ibilgailuek erabiltzeari dagokionez, benetan ibilgailu horiek beharrezkoa den jende kopuruak okupatuta dauden edo ez kontrolatzeko orduan egon litezkeen zailtasunak aintzat hartuz, zenbaitek adierazpen hori ekintzaren edukitik kentzea proposatu zuten eta gainerakoak ados azaldu ziren. 5.2.1 ekintzaren inguruan egindako bi proposamenak kontuan hartuz, ekintza horren idazketa berria honela geratuko litzateke: *Udaletxetik, beste erakunde batzuekin koordinatuz, autobus bideak sortzeko aukera ikertu -bide horiek ere taxiak eta bizikletek erabiltzeko aukera izan dezaten- eta baita udalerrira Irunen tranbia bidez lotzeko aukera ere.*

5.2. programan ekintza berri bat gehitzea ere proposatu zen: *Herritarren beharrei erreparatuz, udaletxetik garraio publikoaren zerbitzu berriak martxan jartzea bultzatu.*

P 5.3. Motordun garraiobideen aurrean garraiobide eta garraio azpiegitura alternatiboak eta iraunkorrak sustatzeko programa:

5.3.1 ekintzari dagokionez, parte hartutako zenbaitek udalerriko bizikleta bideen sarea osatzeaz gain hobetu beharko litzatekeela aipatu zuten. Ildo honetan, Asun Yarzabalek Udalari eskatu zion bidegorriak eraikitzeke unean Udalak jarraitzen dituen irizpideak azaltzeko. Bere ustetan, segurtasunaren irizpidea ere aintzat hartu beharreko irizpideetako bat izan beharko litzateke eta adibide moduan, gazteak institutura doazenean askotan beren burua arriskuan jartzen dutela aipatu zuen. Hori dela eta, ikastetxeetara egiten diren bizikleta bidezko joan-etorriak seguruak izan daitezkeen, Udalak irizpide hori aintzat hartzea eskatu zuen. Aipatutakoa kontuan hartuz, ekintza honi "bidegorri sarea hobetzea" gehituko zaio (ez soilik udalerriko bidegorri sarea osatzea).

Eskolara egiten diren joan-etorriari dagokionez, interesgarritzat jo zen 5.3. programan ekintza zehatz bat gehitzea, bereziki eskolara oinez eta bizikletan

egiten diren desplazamenduak sustatzeko, beti ere joan-etorri horien segurtasuna bermatzeko neurriak hartuz. Ekintzaren edukia honela geratuko litzateke: *Oinezko eta bizikleta bidezko eskolarako joan-etorriak sustatu, horretarako eskola zentroetara iristeko beharrezko segurtasun neurriak abian jarri.*

Irisgarritasunaren gaiari dagokionez (5.1.4 ekintzan eta 5.5. programan jorratzen dena) Sos Maddalen Karrika elkarteko ordezkariak Udalak aurreikusita dauzkan eskailera mekanikoen proiektuari dagokionez, elkartetik alternatiba moduan proposatzen dituzten neurriak azaldu zituzten. Aldi berean, beraiek defendatzen duten alternatiba arrazoitzeko eskatu dituzten ikerketen berri eman zuten (EHU, Elkartu –Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea-, eta abar bezalako entitateek elkarrekin defendatzen duen alternatiba indartzen du). Elkartearen ustez, Maddalen karrikaren kasuan, zonalde horretako biztanle guztien irisgarritasuna hobetzeko neurri eraginkorragoak badaudela (besteak beste, autobus zerbitzu berezia edo igogailua aurreikusita dagoen eremutik gertu eta inpaktu gutxiagorekin) eta egungo proiektuak ez duela biztanle guztien irisgarritasuna asetzen. Ion Elizalde eskailera elektrikoek gain, igogailua zonalde horretako beste tokiren batean jar daitekeela aipatu zuen. Bukatzeko, Sos Maddalen Karrika elkarteko ordezkariak eskatutako ikerketen kopiak eta alternatiba moduan egiten duten proposamena jasotzen duen dokumentu multzoa entregatu zieten bilerara etorritakoei.

P5.4. Herritarrak mugikortasun iraunkorraren gaian hezteko eta sentikortzeko programa:

Programa honi ekintza berri bat gehitzea proposatu zen: *Eskolako Agenda 21 programa aprobetxatuz, eskoletan mugikortasun iraunkorraren gaia txertatzea, eskola-ekintzetan mugikortasun iraunkorreko irizpideak barneratuz.*

Bilera 21:30ean amaitu zen.

Irailaren 17an egindako Herritarren Foroaren bileran egindako proposamenak jaso eta Ekintza Planeko 4. eta 5. lerroak osatu ditugu. Kolore urdinez agertzen dira egindako ekarpenen arabera aldaketarik jaso duten ekintzak, berridatziak izan direnak edo proposatutako ekintza berriak. Bi atalok hurrengo orrietan aurkituko dituzue:

HONDARRIBIKO IRAUNKORTASUNERAKO TOKIKO EKINTZA PLANA			
ZENBAKIA	LERRA ESTRATEGIKOAREN IZENBURUA		
LE 4	HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BAT DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA		
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA	
	P 4.1	Herria neurrigabe handitzea eragozteko eta hiri dentsitate egokiak bultzatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 4.1.1	Udaletik hirigintza eredu hedakor baten orde (bereziki dentsitate baxuko etxebizitza eredu oinarritutakoa) eredu intentsibo baten alde lan egin (hau da, lurzoru behar gutxiago duten altueran eraikitako etxebizitza garapenak ahalbidetu)
		E 4.1.2	Udalean lantzen diren plan, proiektu eta programa estrategikoetan, ingurumen aldagaia aintzat hartua izan dadin, udal Ingurumen Teknikariaren parte hartzea bultzatu
	P 4.2	Lurzoruaren erabilera arrazionala eta mistoa sustatzeko programa, ekoizpen jarduera txikien eta etxebizitzaren arteko oreka lortzea bultzatuz	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 4.2.1	Hirigintza sustapen berrietan udaletik erabileren dibertsifikazioaren alde egin
		E 4.2.2	Hirigune guztietarako irisgarritasuna hobetu
		E 4.2.3	Auzo guztietan gizarte bizitza sustatzea, "lo auzoak" sortzea ekidinez
		E 4.2.4	Hondarribian hutsik egon daitezkeen etxebizitzetara buruzko errolda egin eta etxebizitza hutsen arazoari irtenbidea emateko martxan jar daitezkeen neurri ezberdinei buruzko azterketa egin
		E 4.2.5	Sustapen pribatuko etxebizitzak familien egoerara egokitzeko araudia abian jarri
	P 4.3	Dagoeneko existitzen diren Hondarribiko eraikinetan eraikuntza eta diseinu iraunkorrak barneratzeko eskakizunak ezartzea	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 4.3.1	Eraikin publikoetan eguzki energiaren ezarpenaren inguruko azterketa egin
		E 4.3.2	Eraikin publikoetan eguzki energiaren ezarpena arautuko duen udal ordenantza bat idatzi eta onartzea
	E 4.3.3	Eraikin publikoetan natur baliabideen aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeko	

LE 4	P 4.4		sistemak ezartzen joateko pausoak eman		
		E 4.3.4	Ingurumenaren hobekuntzaren ikuspuntutik Eraikin Kodearen edukia baino haratago doan udal ordenantza bat diseinatzeko aukera aztertu		
		Herriko kultur ondarea gordetzeko, berritzeko eta indartzeko programa			
		EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA	
		E 4.4.1	Hirigune historikoaren harresien kontserbaziorako jarduerekin jarraitu		
		E 4.4.2	Guadalupeko Gotorlekua suspertu eta bertan zabalkunde jarduerak antolatzea		
		E 4.4.3	Goiko Errota naturaren interpretazio gunea suspertu eta martxan jartzea		
		E 4.4.4	Udaletxetik tokiko ondarearen katalogazioa bultzatu (natur ondarea, kultura ondarea, ondare historikoa,...), ondoren udalerriko ondarearen ezagutza herritarrei hurbildu eta ondarearen errespetua sustatzeko asmoz sor daitezkeen dibulgazio baliabideak aztertu eta herritarrei hurbilduz		
		E 4.4.5	Hondarribian ingurumen aldetik interes berezia duten guneen udal kontrola aurrera eraman, motordun ibilgailuen sarrera kontrolatuz eta posible den guztietan soilik oinezkoen sarrera onartuz		
		E 4.4.6	Arrantza sektoreari lotutako kultur ondarea indartzea (Karroaren berreskurapena,...)		
		E 4.4.7	Alde zaharren ondarea indartzea, bereziki auzo-bizitzaren biziberritzea eta alde zaharrak duen balio historikoa oinarritzat hartuz		
E 4.4.8	Jaizkibel mendian dauden aztarnen balioa handitzea (estazio megalitikoa, esaterako)				
E 4.4.9	Maddalen karrikako ondare historikoa ikertu, berreskuratu eta balioan jartzea bultzatu (Done Jakue bidea, tenplua, bide zaharren berreskurapena, e.a.)				
LE 5	BIZTANLERIAREN MUGIKORTASUN ETA IRISGARRITASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK AINTZAT HARTUZ ASETZEA				
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA			
	P 5.1	Autoaren erabilera arrazionala bultzatzeko programa			
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA		
		E 5.1.1	Hondarribiko barne trafikoa eta mugikortasunaren ikerketa gauzatu, aurrez herritarren beharrak aztertuz eta aipatu dokumentua mugikortasun iraunkorreko irizpideekin osatuz		

LE 5	P 5.2	E 5.1.2	Hirigune historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraiobideen sarrera kontrolatuz eta garraiobide pribatuen sarrera ekiditeko pausoak emanez, beti ere, bertako bizilagunei zuzendutako alternatibak martxan jarri	
		E 5.1.3	Hirigune historikora sartzeko motordun ibilgailuak ez diren desplazamendu era ezberdinen irisgarritasuna aztertu eta hobetu (oinezkoen, bizikleten, gurgil-aulkiak, ...)	
		E 5.1.4	Udaletxeko apustu eta erabaki politiko moduan, herritar guztiek udalerrian zehar mugitzeko garraio publikoaren, oinezko joan etorrien eta bizikletaren erabilpenaren alde egitea	
		E 5.1.5	Herritarrek garraio publikoa ohiko joan etorrietan erabil dezaten, udaletxetik dagoen garraio publikoaren inguruko zerbitzua ezagutzera eman (udal web gunearen bidez, garraio publikoari buruzko egutegia bat diseinatuz, eta abar).	
		E 5.1.6	Hondarribiko goiko auzoetarako irisgarritasuna hobetze aldera, udaletxetik, beste erakunde batzuekin elkarlanean, mikrobus zerbitzu bat abiarazteko aukerak ikertu eta herri-hausturako guneak gainditzeko bestelako neurrien ezarpena aztertu	
		E 5.1.7	Autoz egiten diren joan-etorriei begira -herri barruko desplazamenduak, kanpotik udalerrira egiten direnak eta Hondarribitik kanpora egiten direnak- iraunkortasun irizpideak eta neurriak martxan jartzea (hala nola; autoa partekatze sistemak, disuasio aparkalekuak eta garraio publikoaren eskaintza eraginkorra)	
		Kalitatezko Garraio zerbitzu publiko eraginkorra eta erakargarria sustatzeko programa		
	EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 5.2.1	Udaletxetik, beste erakunde batzuekin koordinatuz, autobus bideak sortzeko aukera ikertu –bide horiek ere taxiak eta bizikletek erabiltzeko aukera izan dezaten- eta baita udalerrira Irunen tranbia bidez lotzeko aukera ere		
	E 5.2.2	Herritarren beharrei erreparatuz, udaletxetik garraio publikoaren zerbitzu berriak martxan jartzea bultzatu		
	P 5.3	Motordun garraiobideen aurrean garraiobide eta garraio azpiegitura alternatiboak eta iraunkorragoak sustatzeko programa		
		EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA
		E 5.3.1	Udalerriko bidegorri sarea osatu eta hobetu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eskualde mailako bidegorrien lotura	

		gauzatu
	E 5.3.2	Bizikletaren erabilera sustatze aldera beste udalerrri batzuetan martxan jarritako estrategiak eta ekimenak aintzat hartu, horiek Hondarribian etorkizunean aurrera eramateko aukerak aztertuz (bizikletaren mailegurako udal zerbitzua, bizikleten aparkalekuak, ...)
	E 5.3.3	Oinezko eta bizikleta bidezko eskolarako joan-etorriak sustatu, horretarako eskola zentroetara iristeko beharrezko segurtasun neurriak abian jarritz
P 5.4	Herritarrak mugikortasun iraunkorraren gaian hezteko eta sentikortzeko programa	
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	E 5.4.1	Udaletik bizikleta, garraio publikoa eta oinez egindako joan etorriak sustatzeko helburuarekin martxan jartzen diren neurri zehatzekin batera, herritarrei zuzendutako mugikortasun iraunkorrari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazio jarduerak aurrera eramanez
	E 5.4.2	Eskolako Agenda 21 programa aprobetxatuz, eskoletan mugikortasun iraunkorraren gaia txertatzea, eskola-ekintzetan mugikortasun iraunkorreko irizpideak barneratuz
P 5.5	Biztanle guztien irisgarritasuna hobetzeko programa	
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	E 5.5.1	Hondarribiko landa eremuan bizi diren pertsonen mugikortasuna hobetze aldera zuzendutako jarduerak aurrera eramanez.
P 5.6	Udal ibilgailuetan eta udalerrian zerbitzua ematen duten garraio publikoko ibilgailuetan emisio kutsatzaile gutxiago igortzen dituztenak sustatzeko programa	
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	E 5.6.1	Udal zerbitzuek erabiltzen dituzten ibilgailuen ikerketa bat egin eta zenbait joan etorrietan udal langileek bizikleta elektrikoak nahiz motor elektrikoak erabiltzea sustatu (udaltzaingoa, eta abar.)
	E 5.6.2	Udal ibilgailu parkerako ibilgailu berriak eskuratzeko garaian udalak ingurumen aldagaia aintzat hartzea bultzatu (ibilgailu hibridoak, kontsumo eta gas isurpen kutsatzaile gutxiagoko ibilgailuak, eta abar. eskuratzeko aukerak baloratuz)